

## Xedapen Orokorrak

### GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK

558

1/2010 FORU ARAUA, uztailearen 8koa, Herritarren Partaidetzari buruzkoa.

#### GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «Herritarren partaidetzari buruzko uztailearen 8ko 1/2010 Foru Araua», eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia-San Sebastián, 2010eko uztailearen 8a.

Diputatu nagusia,  
MARKEL OLANO ARRESE.

#### ZIOEN AZALPENA

Gure inguruko ordezkari bidezko sistemak sendo finkatuta badaude ere, eta horietako instituzioen garapena erabateko normaltasunez gauzatu arren, ezinbestekoa da dituzten mugei aurre egitea, eta demokrazia-esperientzia partaidetzarako beste modu batzuetara zabaltzea, osagarri izan daitezke eta sistema demokratikoa aberasteko, are honen oinarriak tinkoago egiteko ere.

Gizarte gero eta konplexuagoak sortzen ari direla, eta horietan gizarte behar berriak agertzen direla, areagotu egiten da gizartearen eta instituzioen arteko tartea handiagotzeko arriskua, eta aldi berean ageriko egiten dira herritarrek parte hartzeko egiten dituzten eskari berriak.

Azken aldi honetan, instituzio eta foro nazional zein internazional esanguratsuenetan, agerian geratzen ari da herritarren partaidetza zuzenerako formak bul-tzatze beharra, hain zuzen ere, demokrazia ordezkariaren instituzioen osagarri modura eta gure gizartearen izaera demokratikoa sakontzearen. Honek bere isla du gure oinarriko testu juridikoetan ere. Berrien eta berritzaileen artean, gogora ekarri behar ditugu Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Kartan jasotako printzipioak, Europar Batzordearen «Europar Gobernantza» liburu zurian, 2001eko uztailearen 25ekoan, jasoak, eta honi jarraipena eman dioten lanak, bazterrean uzteke, inolaz ere, Europar Kontseiluen Ministroen Batzordeak 2001eko abenduaren 6an egin Gomendioa [Gom(2001)19], herritarrek bizitza

## Disposiciones Generales

### JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

558

NORMA FORAL 1/2010, de 8 de julio, sobre Participación Ciudadana.

#### EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 1/2010, de 8 de julio, sobre Participación Ciudadana», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

Donostia-San Sebastián, 8 de julio de 2010.

El Diputado General,  
MARKEL OLANO ARRESE.

#### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La sólida consolidación de los sistemas democráticos representativos de nuestro entorno y la plena normalidad en que se desarrollan sus instituciones no ha evitado la necesidad de enfrentarse a sus límites, abriendo la experiencia democrática a otras formas de participación que, de forma complementaria, enriquezcan el sistema democrático, reafirmando sus fundamentos.

La emergencia de sociedades crecientemente complejas, que crean nuevas necesidades sociales, incrementa el riesgo de distanciamiento entre sociedad e instituciones y, simultáneamente, crea nuevas demandas de participación por parte de la ciudadanía.

La necesidad de impulsar formas directas de participación ciudadana, que complementen las instituciones de la democracia representativa, profundizando la naturaleza democrática de nuestras sociedades, viene siendo puesta de manifiesto en los últimos tiempos en las más relevantes instituciones y foros nacionales e internacionales y encuentran su asiento en nuestros textos jurídicos fundamentales. Entre los más recientes y novedosos es necesario recordar los principios recogidos en la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea, las reflexiones contenidas en el Libro Blanco «La Gobernanza Europea», de la Comisión Europea, de 25 de julio de 2001, y los trabajos que le han dado continuidad, así como la Recomendación del Comité de Ministros del Consejo de Euro-

publiko lokalean izan beharreko partaidetzari buruzkoa.

Foru arau honek gogoetok ezarritako norabide berean egin nahi du aurrera. Eta horretarako lurralde historikoko herritarren partaidetza zuzenerako tresnak eta prozedura espezifikokoak ezartzen ditu, zentzurik zabalenean.

Izan ere, arau honek berritzailea izan nahi du. Lehenik, partaidetza zuzenerako prozedurak eta tresnak jasotzen dituelako gauzatze prozedura administratiboen esparruan. Ezartzen diren partaidetza zuzenerako formak gobernu instituzio baten esparruan zabalduko dira, Foru Aldundiarenean alegia, eta hau oso garrantzitsua da, partaidetza zuzenerako formak gobernu instituzio exekutiboen esparrutik at geratu izan dira eta. Bigarrenik, ezartzen diren partaidetzarako tresna espezifikoen ezaugarriengatik.

Foru Araua zazpi idazpurutan egituratua dago, eta ditu berrogeita sei artikulua, bi xedapen iragankor eta bi amaierako xedapen.

I. idazpuruak xedapen orokorrak biltzen ditu eta, bertan, Foru Arauaren xedea eta helburua zehazteaz gainera, zer aplikazioaren esparru objektibo eta subjektibo izango duten definitzen da, hauexek direla: Foru Aldundiari dagozkion gobernu eta administraziozko eskumenen erabilera eta Gipuzkoako lurralde historikoko edozein udalerritako pertsona egoiliarrek eta Gipuzkoako entitateak, Foru Arauak berak ondorio hauetarako halakotzat hartuak. Halaber, jasotzen du, baita ere, zer eragin izango duten partaidetza prozesuon emaitzak Lurralde Historikoaren gobernu eta administrazio eginkizunaren erabileran.

II. idazpuruak herritarren partaidetzari buruzko eskubideak erregulatzen ditu, araubide juridikoan ezarrita dauden eran, eta zehazki: Foru Aldundiaren eskumenekoak diren gai publikoen kudeaketan, partaidetza prozesuak eginez, parte hartzeko eskubidea; tramitazioan dauden erabakien gaineko informazioa jasotzeko eskubidea, Foru Aldundiaren beraren egoitza elektronikoa emandako zabalkunde publikoaren bitartez; lurralde historikoko edozein udalerritako pertsona egoiliarrek partaidetza prozesuak abian jartzeko eskaria egiteko eskubidea; eta pertsona egoiliarrek, herritar erakundeek eta toki entitateek, Foru Arau honetan aurreikusten diren partaidetza prozesuak abian jartzea proposatzeko, duten ekimenerako eskubidea.

III. idazpuruak, berriz, lau kapitulu ditu, eta herritarren partaidetzarako bitartekoak erregulatzen ditu.

Foru arau honek partaidetzazko deliberazio prozesuen ezarpena jorratzen du, nabarmen; prozesu horiek Foru Aldundiari dagozkion politika publikoak

pa, de 6 de diciembre de 2001, sobre la participación ciudadana en la vida pública local [Rec(2001)19].

La presente Norma Foral pretende situarse en la dirección establecida en estas reflexiones. Y para ello establece instrumentos y procedimientos específicos de participación directa de la ciudadanía del Territorio Histórico, en el sentido más amplio.

Se trata de una norma que pretende ser innovadora. En primer lugar, por incorporar procedimientos e instrumentos de participación directa en el ámbito de los procedimientos administrativos de ejecución. Las formas de participación directa que se establecen van a desplegarse en el ámbito de una institución de gobierno como la Diputación Foral, lo que tiene una gran significación, en la medida en que las formas de participación directa han quedado, tradicionalmente, fuera del ámbito de instituciones ejecutivas de gobierno. En segundo lugar, por las características de los específicos instrumentos de participación que se establecen.

La Norma Foral se estructura en siete títulos y contiene cuarenta y seis artículos, dos disposiciones transitorias y dos disposiciones finales.

El Título I contiene las disposiciones generales en el que además de determinar el objeto y finalidad de la Norma Foral, se delimita el ámbito objetivo y subjetivo de aplicación de la misma, que se concreta en el ejercicio de las competencias de gobierno y administración que corresponden a la Diputación Foral y que afectan a las personas residentes en cualquiera de los municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa así como a las entidades guipuzcoanas a tal efecto definidas en la propia Norma Foral. Asimismo, se contempla la incidencia de los resultados de los procesos participativos en el ejercicio de la acción de gobierno y administración del Territorio Histórico.

El Título II regula los derechos relativos a la participación ciudadana, en los términos establecidos en el ordenamiento jurídico, y en concreto: el derecho a participar en la gestión de los asuntos públicos que son competencia de la Diputación Foral mediante la realización de procesos participativos; el derecho a la información sobre los procedimientos de decisión que se encuentren en tramitación mediante su difusión pública en la sede electrónica de la Diputación Foral; el derecho de petición de las personas residentes en cualquiera de los municipios del Territorio Histórico para la realización de procesos de participación; y el derecho de iniciativa de las personas residentes, de las entidades ciudadanas y de las entidades locales para proponer la apertura de los procesos participativos previstos en la Norma Foral.

El Título III se divide en cuatro Capítulos y regula los instrumentos de participación ciudadana.

La Norma Foral gira, de forma muy destacada, sobre el establecimiento de procesos de deliberación participativa que se insertarán en los procedimientos

erabakitzekeo prozedura administratiboetan txertatuko dira. Teknika honek aukera ematen du gizarte interes eta igurikapenen aberastasun osoa erabakitzekeo prozeduran txertatzeko, betiere erabakiak hartzekeo prozedurarentzat onuragarria izango den moduan. Partaidetzazko deliberazio prozesuekin bat, beste instrumentu mota osagarri batzuk aurreikusten dira, hala nola herri kontsultak edota foru arauen aurreproiektuen prestakuntzazko partaidetza, horrelakoetan posible baita beste hainbat esperientzia ere egokitzea, partaidetza bidezko aurrekontuena edota azken aldi honetan zenbait esparrutan probatzen ari diren beste batzuk, esaterako. Azkenean, bada gauzatze praktikorenean partaidetzarako instrumentuen ezaugarriei buruzko aurreikuspenak malgutzea ahalbidetzen duen aurreikuspen bat.

IV. idazpurua hiru kapitulutan egituratua dago, eta partaidetza prozesuetan esku har dezaketzen herritar erakundeei buruzkoa da. Herritar erakundeei dagokienez, aurreikusten da ondorio hauetarako errekonozituak izatea, eta, horretarako, izena eman beharko dute Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan, zeina Foru Arauaren beraren arabera eratzten baita, erregelamenduz garatzea eragotzi gabe bada ere. Era berean, herritarren partaidetza sustatzeko neurriak aurreikusten dira.

V. idazpuruak lau kapitulu ditu, eta herritarren partaidetzarako antolaketa erregulatzen du.

Lehenik eta behin, Partaidetza Programa erregulatzen da, Foru Aldundiaren jardueraren baitan herritarren partaidetzari dagokionez egiten diren proposamen guztiak biltzen dituena.

Gainera, herritarren partaidetzarako sistema berritzaile batek, foru arau honetan ezartzen dena bezalako batek alegia, lortu nahi diren helburuei eta jasotako berrikuntzei egokitutako gobernu sistema egoki bat ezartzea eskatzen du. Partaidetzarako sistema txertatzen da, hain zuzen ere Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren artean dagoen konfiantzazko harremanen eta erantzukizun politikoaren ardatzean. Egitura honetan Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilu bat txertatzen da, partaidetza arloko kontsulta organo gisa; honek, Foru Aldundiaren jardura arloetan ospe handia duten pertsonak izango ditu kide.

Foru arau honetan ezartzen den herritarren partaidetzaren gobernurako beharrezkoa da zuzendaritza eta koordinazio organo bat edukitzea. Ondorio horietarako, Herritarren Partaidetzarako Foru Batzorde bat antolatuko da, eta honetan Foru Aldundiaren departamentu guztiak egongo dira ordezkatuta. Baina, aldi berean, partaidetza prozesuak autonomia tekniko eta partaidetza aurrean eta, oro har, herritarren aurrean sinesgarri izanez kudeatu behar dira. Horregatik, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza

administratibos de decisión de las políticas públicas que corresponden a la Diputación Foral. Se trata de una técnica que permite incorporar al procedimiento de decisión toda la riqueza de los intereses y expectativas sociales de una forma que sea beneficiosa para el procedimiento de adopción de decisiones. Junto a los procesos de deliberación participativa, se prevén otro tipo de instrumentos complementarios, como las consultas populares o la participación en la elaboración de anteproyectos de normas forales, en cuyo ámbito pueden encajarse experiencias como la de los presupuestos participativos u otras que se están ensayando en los últimos tiempos en diferentes ámbitos. Finalmente, hay una previsión que permite la flexibilización, en la ejecución práctica, de las previsiones sobre las características de los instrumentos participativos.

El Título IV se estructura en tres Capítulos y está dedicado a las entidades ciudadanas en el proceso de participación respecto de las que se prevé la necesidad de su reconocimiento a estos efectos mediante su inscripción en el Registro Foral de Entidades Ciudadanas para la Participación que se constituye en virtud de la presente Norma Foral sin perjuicio de su desarrollo reglamentario. Asimismo, se prevén medidas de fomento de la participación ciudadana.

El Título V en sus cuatro Capítulos, regula la organización para la participación ciudadana.

En primer lugar, se regula el Programa Participativo como instrumento en el que se deben contener el conjunto de propuestas en materia de participación ciudadana que enmarcan la actividad de la Diputación Foral.

Además, un sistema de participación ciudadana innovador como el que se establece en esta Norma Foral requiere el establecimiento de un sistema de gobierno adecuado a los fines perseguidos y a las innovaciones incorporadas. El sistema participativo se inserta en el eje de relaciones de confianza y de responsabilidad política existente entre Juntas Generales, por una parte, y Diputación Foral, por otra. En esta estructura se inserta un Consejo Social para la Participación Ciudadana del Territorio Histórico, como órgano consultivo en materia de participación, que incorpore personas de reconocido prestigio en los diferentes sectores de actuación de la Diputación Foral.

El gobierno de la participación ciudadana establecido en esta Norma Foral requiere de un órgano de dirección y coordinación. A esos efectos se establece una Comisión Foral para la Participación Ciudadana en la que estarán representados todos los departamentos de la Diputación Foral. Pero, al mismo tiempo, los procesos de participación requieren ser gestionados con autonomía técnica y credibilidad frente a los participantes y, en general a la ciudadanía, por lo que se establece una Dirección Foral para la Participación

bat ezarriko da, eta honek autonomia hierarkikoa eta funtzionala izango du. Ostean, Zuzendaritza honek bere gain izango du partaidetza prozesuak garatzeko erantzukizuna.

Foru Arau honetan oso garrantzi handia du Foru Aldundiaren eta toki entitateen arteko lankidetzak, herritarren partaidetza sustatzera begira, eta, xede horretarako, toki entitateetan partaidetza sustatzeko era erregulatzen du VI. idazpuruak.

Azkenik, partaidetza prozesuak ebaluatu egin behar dira, gauzatzeko eran etengabeko hobekuntza prozesua ezarri ahal izateko. Ebaluazio honek, funtzionamenduan halako epe zentzuzko bat eman ondoren, foru arau honek ezartzen duen sistema osoari eragin behar dio era berean, Batzar Nagusiek aukera izan dezaten araua moldatzeko edo egokitzeko prozesuari oinarri sendoz ekiteko; horregatik, hain zuzen ere, VII. kapitulua partaidetza sistemaren eta partaidetza prozesuen ebaluazioari buruzkoa da.

Ondorioz, foru arau honen bidez hainbat arau helburu lortu nahi dira, zenbait arlotan: a) Arlo politikoan: eskubideak garatzea eta demokrazia sendotzea eta legitimatzea); b) Arlo ekonomiko-administratiboan: eraginkortasunaren hobekuntza, inertzia zuzentzeko bultzadak, erabakiak hartzea sinplifikatzea; c) Birbanaketaren arloan: interes eta subjektu sorta zabalago bat hartzea aintzat; d) Erabakitze arloan: erabakiaren sostengu sendoagoa, eztabaida publikoari, informazio hobeari eta zuzendaritza politikoaren, gizarte esperientziaren eta teknikarien espezializazioaren konbinazioari esker; e) Arlo juridikoan: prozedura administratiboaren kontzeptio berria, interes publikoaren eta jardura administratiboaren arteko identifikazioa gaintuz horrela, prozeduraren emaitzak kontuan hartzeari esker; f) Administrazio arloan: diskrezionalitate administratiboaren esparruan erabakiak hartzeko orduan baliabide osagarri gisa; g) Demokraziaren arloan: esfera publikoaren hedapenaz eta ordezkari, kudeatzaile eta herritarren arteko lankidetzaz osatutako ordezkari-erakundearen gaintze partziala.

Irekiera honen ondorio baliotsua, beraz, elkarrekin aintzatespen bat da, alde batean instituzioak direla eta bestean, berriz, bere interesak zehazten dituen eta horiek aintzatesteko eta asetzeko prest dagoen gizarte aktiboa.

Foru arau hau Batzar Nagusiei dagokien eskumena baliatuta ematen da, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzkoak, 9.1 artikuluan xedatzen duenarekin bat, eta 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta Lurral-

Ciudadana, que será quien asumirá la responsabilidad de la realización de los procesos participativos.

En la presente Norma Foral tiene una importancia muy destacada la colaboración de la Diputación Foral con las entidades locales para el fomento de la participación ciudadana y a tal efecto, el Título VI regula el fomento de la participación en las entidades locales.

Por último, los procesos participativos deben ser objeto de evaluación, con el fin de establecer un proceso de continua mejora en su puesta en práctica. Esta evaluación debe afectar, igualmente, tras un periodo prudencial de funcionamiento, al conjunto del sistema establecido en esta Norma Foral, a los efectos de que las Juntas Generales puedan afrontar con bases sólidas el proceso de reforma o adecuación de la misma, por ello el Título VII está dedicado a la evaluación del sistema de participación y de los procesos participativos.

En consecuencia, con esta Norma Foral se persigue la realización de objetivos normativos diversos referidos al: a) **Ámbito político:** desarrollo de los derechos y reforzamiento y legitimación de la democracia; b) **Ámbito económico-administrativo:** mejora de la eficacia, impulsos correctores de la inercia, simplificación de la toma de decisiones; c) **Ámbito redistributivo:** toma en consideración de un abanico más amplio de intereses y sujetos; d) **Ámbito decisorio:** superior fundamento de la decisión debido al debate público, la mejor información y la combinación de la dirección política, la experiencia social y la especialización de los técnicos; e) **Ámbito jurídico:** nueva concepción del procedimiento administrativo que supera la identificación entre interés público y actividad administrativa gracias a la toma en consideración de los resultados del procedimiento; f) **Ámbito administrativo:** como elemento complementario para la toma de decisiones en el ámbito de la discrecionalidad administrativa; g) **Ámbito democrático:** superación parcial del esquema de delegación complementado por la expansión de la esfera pública y la colaboración entre representantes, gestores y ciudadanía.

La valiosa consecuencia de esta apertura no será otra que el mutuo reconocimiento entre las instituciones y una sociedad activa que explicita sus intereses y se apresta a su reconocimiento y satisfacción.

La presente Norma Foral se dicta en ejercicio de la competencia que corresponde a las Juntas Generales de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 9.1 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en relación con lo dispuesto en el artículo 7.a.1 de la Ley 27/1983,

de Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzkoak, 7.a.1 artikuluan dioenaren ildotik.

## I. IDAZPURUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### **1. artikulua.**– Xedea.

1.– Foru arau honen xedea da tresnak eta prozedurak arautzea, Gipuzkoako lurralde historikoko edozein udalerritako pertsona egoiliarrek eta Gipuzkoako herritar erakundeek parte har dezaten Foru Aldundiaren gobernu eta administrazio eginkizunen erabileran, foru eskumenen esparruan.

2.– Foru arau honetan xedatutakoak osatu egiten du oro har antolamendu juridikoan edo, berariaz, Gipuzkoako Lurralde Historikoarenean finkatutako erregulazioa, eta ez du, inolaz ere, herritarren partaidetza eskubideak murrizterik edo ahultzerik eragingo.

#### **2. artikulua.**– Aplikazio esparrua.

1.– Foru arau honen aplikazio esparru objektiboa Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren gobernu eta administrazio eskumenen erabilerari dagokio. Gainera, foru arau honek arautzen du lurralde historikoko toki entitateekiko lankidetzaren partaidetza sustatzera begira, eta horretara zuzendutako hainbat tresna jartzen dizkio eskura.

2.– Aplikazio esparru subjektiboa Gipuzkoako lurralde historikoko edozein udalerritako pertsona egoiliarrek dira, bai eta herritar erakundeak ere, eragotzi gabe partaidetza eskubideetako batzuk erabiltzeko berariazko beharkizunak eskatu ahal izatea.

#### **3. artikulua.**– Helburuak.

Foru arau honen helburuak hurrenak dira:

a) Herritarren partaidetza sustatzea eta bultzatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko gai publikoetan, eta partaidetza hori ezartzea Foru Administrazioaren funtzionamenduan, beronen kudeaketa maila desberdinetan.

b) Herritarren eta herritarrak antolatzen diren taldeen eskubide demokratikoak garatzea, demokrazia ordezkatzailerako eskubideak eta teknikak osatzen eta hobetzen dituzten partaidetzazko demokraziaren prozesu, praktika eta tresnak baliatuta.

c) Herritarren partaidetzaren kultura sustatzea eta finkatzea.

d) Herritarrak kudeaketa publikoan inplika daiten bultzatzea, publikoa interesatzen zaien herritar aktiboak izatearren.

de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.

## TÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

#### **Artículo 1.**– Objeto.

1.– Es objeto de la presente Norma Foral la regulación de instrumentos y procedimientos específicos de participación de las personas residentes y de las entidades ciudadanas de Gipuzkoa en el ejercicio por la Diputación Foral de la función de gobierno y administración, en el ámbito de las competencias forales.

2.– Lo dispuesto en esta Norma Foral complementa la regulación establecida, con carácter general, en el ordenamiento jurídico o, de forma específica, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, y no supone, en ningún caso, limitación o menoscabo del ejercicio de los derechos de participación ciudadana.

#### **Artículo 2.**– Ámbito de aplicación.

1.– El ámbito objetivo de aplicación de esta Norma Foral se refiere al ejercicio de las competencias de gobierno y administración que corresponden a la Diputación Foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Además, esta Norma Foral regula la colaboración con las entidades locales del Territorio Histórico en el fomento de la participación ciudadana, poniendo a su disposición instrumentos dirigidos a ese fin.

2.– El ámbito subjetivo de aplicación se refiere a las personas residentes en cualquiera de los municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como a las entidades ciudadanas, sin perjuicio de los requisitos que puedan ser exigibles, de forma específica, para el ejercicio de algunos de los derechos de participación.

#### **Artículo 3.**– Objetivos.

Esta Norma Foral tiene como finalidad:

a) Promover e impulsar la participación ciudadana en los asuntos públicos en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, instaurando la participación en el funcionamiento de la Administración Foral en sus distintos niveles de gestión.

b) Desarrollar los derechos democráticos de la ciudadanía y de los grupos en que se organiza por medio de los procesos, prácticas e instrumentos de democracia participativa que complementen y perfeccionen los derechos y las técnicas de la democracia representativa.

c) Fomentar la consolidación de una cultura de participación ciudadana.

d) Propiciar la implicación de la ciudadanía en la gestión pública para lograr una ciudadanía activa interesada por lo público.

e) Gobernuaren jarduera gardenago egitea eta gobernu jardueraren eta gizartearen arteko lotura egituratzea lurralde historikoan.

f) Botere publikoak gizartearen behar eta dinamiketara zabal daitezzen bultzatzea.

g) Politika eta administrazio jardura eraginkoragoa izan dadin bultzatzea gizarte elkarlanaren bidez, hain zuzen politika publikoen prestakuntzan eta lortutako emaitzen balorazioan baliatu ahal izatearren herritarren ezaguerak eta esperientziak ematen duten aberastasuna.

h) Gizarte elkartasun eta integrazio maila handiagoak bermatzea, berariazko ekarpena eginez genero berdintasunaren, subjektu desfaboratu edo ahulenen interesen eta ordezkaritza-ahalmen txikienekoen interesen defentsaren arloan.

i) Elkarre elkarre sustatzea eta partaidetzaren kultura eta ohiturak zabaltzea.

j) Lurralde historikoko toki entitateekin elkarlanean aritzea, herritarren partaidetza sustatzeko eta erakunde horien gobernu eta administrazio jardueran partaidetza prozesuak aurrera eramateko.

**4. artikulua.**– Herritarren partaidetzaren eragin-kortasuna.

1.– Foru arau honetan arautzen den herritarren partaidetza ordezkaritza bidezko parte hartzearen tresna osagarri bat da, Foru Aldundiak hartzen dituen erabakietako aniztasuna sendotzera zuzendua.

2.– Foru Aldundiaren erabakitze prozeduretan herritarren partaidetzarako tresnak ezartzeak ez du inolako aldaketarik, ez murrizpenik ekarriko Foru Aldundiak dagozkion erabakiak hartzeko unean izango duen ahalmen eta erantzukizunean.

3.– Partaidetza prozesuetatik ondorioztatzen diren emaitzak bere egin ahal izango ditu Foru Aldundiak, Lurralde historikoko gobernu eta administrazio jardueran. Dena den, foru arau honetan aurreikusitakoa aplikaturik partaidetza prozesu bat izan den prozeduren kasuan Foru Aldundiak ez baditu bere egiten, osorik edo zati batez, prozesu haren emaitzak, arazoitu egin beharko du erabaki hori.

## II. IDAZPURUA

### HERRITARREN PARTE-HARTZEARI LOTUTAKO ESKUBIDEAK

**5. artikulua.**– Partaidetza eskubidea.

1.– Gipuzkoako lurralde historikoko egoiliarrek, bai zuzenean bai dagozkien herritar erakundeen bidez, eskubidea dute Foru Aldundiaren eskumen diren gai publikoen kudeaketan parte hartzeko, antolamen-

e) Incrementar la transparencia en la acción de gobierno y articular la vinculación entre la acción de gobierno y la sociedad en el Territorio Histórico.

f) Impulsar la apertura de los poderes públicos a las necesidades y dinámicas sociales.

g) Favorecer la mayor eficacia de la acción política y administrativa a través de la colaboración social, de forma que la elaboración de las políticas públicas y la valoración de los resultados alcanzados se beneficien de la riqueza que representan los conocimientos y experiencias de la ciudadanía.

h) Garantizar mayores niveles de solidaridad y de integración social contribuyendo, de forma específica, a la igualdad de género y a la defensa de los intereses de los sujetos desfavorecidos o vulnerables y de los intereses con menor capacidad representativa.

i) Fomentar el tejido asociativo y difundir la cultura y los hábitos participativos.

j) Colaborar con las entidades locales del Territorio Histórico en el fomento de la participación ciudadana y en la realización de procesos de participación en su actividad de gobierno y administración.

**Artículo 4.**– Eficacia de la participación ciudadana.

1.– La participación ciudadana objeto de regulación en esta Norma Foral constituye un instrumento complementario de la participación representativa, dirigido a reforzar la pluralidad democrática de las decisiones adoptadas por la Diputación Foral.

2.– El establecimiento de instrumentos de participación ciudadana en los procedimientos de decisión de la Diputación Foral no alterará ni supondrá menoscabo de la capacidad ni de la responsabilidad de la Diputación Foral en la adopción de las decisiones que le corresponden.

3.– Los resultados que deriven de los procesos participativos podrán ser asumidos por la Diputación Foral en el ejercicio de la acción de gobierno y administración del Territorio Histórico. No obstante, cuando, en el ámbito de procedimientos en los que se haya producido un proceso participativo en aplicación de lo previsto en esta Norma Foral, la Diputación Foral no acoja, total o parcialmente, sus resultados, estará obligada a motivar las razones de su decisión.

## TÍTULO II

### DE LOS DERECHOS RELATIVOS A LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA

**Artículo 5.**– Derecho a la participación.

1.– Las personas residentes en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, directamente o a través de las correspondientes entidades ciudadanas, tienen el derecho a participar en la gestión de los asuntos públicos

du juridikoan ezarritako baldintzetan eta, zehazki, foru arau honetan aurreikusten diren prozeduren bidez.

2.– Foru arau honetan aurreikusitako ondorioetarako, herritar erakunde interesatuak izango dira Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan behar bezala izen emanda daudenak, betiere izenemate horretan aditzera eman duten interes, lurralde edo gai esparruari dagokionez. Hala eta guztiz, Foru Erregistroan izena eman gabe egoteak ez du eragotziko berariaz prestatutako prozeduraren bidez partaidetza prozesuetan parte hartu ahal izateko gaitasuna.

3.– Foru arau honen esparruan, herritarren partaidetak bi bide izango ditu gauzatzeko, batetik pertsona egoiliarren eskubide indibidualak erabiltzea eta, bestetik, partaidetza prozesuak garatzea. Prozesu hauetarako egituratzeko hainbat fase izango dira, informazioa, eztabaida, ondorioak, zabalkundea eta ebaluazioa alegia, eta pertsona egoiliarrek eta herritar erakundeek parte hartuko dute horietan.

**6. artikulua.**– Partaidetza prozesuetarako informazio eskubidea.

1.– Oro har, Foru Aldundiak pertsona egoiliar guztiei bermatuko die bere departamentuetako edozeinetan tramitazio bidean dauden erabakitze prozedurei buruzko informazio eskubidea, lege antolamenduan ezarritako mugen barnean betiere.

2.– Foru arau honetan erregulatzen den herritarren partaidetza ahalbidetzera begira, Foru Aldundiak, bere departamentuetako bakoitzaren bidez, jendaurrera zabalduko du tramitatzea dagozkion erabakitze prozedurei buruzko informazioa. Horretarako, departamentu bakoitzak, Foru Aldundiaren informazio eta komunikazio sistemak baliatuta, prestatuko ditu tramitatzeko ari den prozeduraren gaineko ezagutza eta jarraipen puntuala ahalbidetzen duten informazioa eta dokumentaziorako sarbidea. Foru departamentuek arreta berezia jarriko dute kolektibo desfaboratuenek edo ahulenek informaziorako sarbide eraginkorra izan dezaten.

3.– Prozedura baten barnean foru arau honetan berariaz aurreikusitako herritarren partaidetzarako tresnak txertatzen direnean, eskumena dagozkion Foru Aldundiaren departamentuak prozeduraren hasierari buruzko informazioa eman beharko dio, derrigorrean, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzari, gaia dela eta interesatuak diren herritar erakundeetarako informazioa bermatzearen, honetaz gain, bete egin beharko da kasuan-kasuan eskumena duen foru departamentuari dagozkion informazio obligazio orokorra.

que son competencia de la Diputación Foral, en los términos establecidos en el ordenamiento jurídico y, específicamente, a través de los procedimientos previstos en esta Norma Foral.

2.– A los efectos previstos en esta Norma Foral se considerará entidades ciudadanas interesadas a aquellas que estén oportunamente inscritas en el Registro Foral de Entidades Ciudadanas para la Participación en el ámbito de interés, territorial o temático, que hayan manifestado en la inscripción. La falta de inscripción en el Registro Foral no impedirá, en cualquier caso, la capacidad de intervenir en los procesos participativos a través del concreto procedimiento habilitado al efecto.

3.– En el ámbito de esta Norma Foral, la participación ciudadana se materializará, por una parte, a través del ejercicio individual de los derechos de las personas residentes y, por otra, a través de la realización de procesos participativos, que se articulan en las fases de información, debate, conclusiones, difusión, y evaluación y en los que intervienen tanto las personas residentes como las entidades ciudadanas.

**Artículo 6.**– Derecho a la información para los procesos de participación.

1.– Con carácter general, la Diputación Foral garantizará a todas las personas residentes el derecho a la información sobre los procedimientos de decisión que se encuentren en tramitación en cualquiera de sus departamentos, dentro de los límites establecidos en el ordenamiento jurídico.

2.– A los efectos específicos de facilitar la participación ciudadana que es objeto de regulación en esta Norma Foral, la Diputación Foral, a través de cada uno de sus departamentos, difundirá públicamente la información sobre los procedimientos de decisión cuya tramitación le corresponda. Para ello, cada departamento habilitará, a través de los sistemas generales de información y comunicación de la Diputación Foral, la información y el acceso a la documentación que permita el conocimiento y el seguimiento puntual del procedimiento que se encuentre en tramitación. Los departamentos forales pondrán especial atención para lograr que el acceso a la información por parte de los colectivos más desfavorecidos o vulnerables sea efectivo.

3.– En el caso de procedimientos en cuyo seno se inserten instrumentos de participación ciudadana específicamente previstos en esta Norma Foral, el departamento de la Diputación Foral al que corresponda la competencia tendrá, específicamente, la obligación de informar sobre el inicio del procedimiento a la Dirección Foral para la Participación Ciudadana, a los efectos de garantizar la información a las entidades ciudadanas interesadas por razón de la materia, todo ello sin perjuicio de la obligación general de información que le corresponda al departamento foral competente.

**7. artikulua.**– Partaidetza prozesuak garatzeko eskari eskubidea.

1.– Pertsona egoiliarrek eskari eskubidea baliatu ahal izango dute Foru Aldundiaren organoen aurrean, honen eskumenekoa eta beren interesekoa den edozein gairi dagokionez, lege antolamenduan ezarritako baldintzetan betiere.

2.– Zehazki, foru arau honetan aurreikusitako ondorioetarako, pertsona egoiliarrek Foru Aldundiaren barneko edozein erabakitze prozeduratan partaidetza prozesua egiteko eskari eskubidea erabili ahal izango dute, foru arau honek ezarritako baldintzetan.

**8. artikulua.**– Ekimen eskubidea.

1.– Zehazki, foru arau honetan aurreikusitako ondorioetarako eta berariaz ezartzen dituen baldintzetan, pertsona egoiliarrek edo herritar erakundeek eskubidea izango dute Foru Aldundiaren erabakitze prozeduratan partaidetza prozesu bat garatzeko ekimena erabiltzeko.

2.– Toki entitateek ekimenerako ahalmena izango dute, halaber, foru arau honetan araututako partaidetza prozesuak irekitzea proposatzeko.

### III. IDAZPURUA

#### HERRITARREN PARTAIDETZRAKO TRESNAK

#### LEHEN KAPITULUA PARTAIDETZAZKO DELIBERAZIO PROZESUAK

**9. artikulua.**– Partaidetzazko deliberazio prozesuaren definizioa eta edukia.

Partaidetzazko deliberazio prozesu bat da erabakitze edo politika publiko jakin bat zehazteko prozedura batean sartzen den egintza multzoa, zeinaren xedea baita hartu behar den erabakiari eta horren ezaugarriei edota, kasua bada, esparru horretan dauden alternatibei buruzko eztabaida publikoa egitea, zuzeneko partaide izanik hartu behar den erabakiari edo politikari dagokion esparruan egoiliar diren pertsonak edo diharduten herritar erakundeak.

**10. artikulua.**– Partaidetzazko deliberazio prozesuaren eremua.

1.– Foru arau honetan arautzen diren partaidetzazko deliberazio prozesuak Gipuzkoako Lurralde Historikoan garrantzi edo eragin berezia duten politika publikoak zehazteko prozeduren barruan baliatu ahal izango dira.

2.– Deliberaziozko partaidetzarako prozesuak prozeduraren hasierako fasean baliatuko dira; fase hori Foru Aldundiak hartutako erabaki batez hasiko da,

**Artículo 7.**– Derecho de petición para la realización de procesos de participación.

1.– Las personas residentes podrán ejercer el derecho de petición ante los órganos de la Diputación Foral sobre cualquier asunto de su interés que sea de la competencia de aquella en los términos establecidos en el ordenamiento jurídico.

2.– Específicamente, a los efectos previstos en esta Norma Foral, las personas residentes podrán ejercer el derecho de petición para la realización de un proceso participativo en el seno de cualquier procedimiento de decisión de la Diputación Foral, en los términos establecidos en esta Norma Foral.

**Artículo 8.**– Derecho de iniciativa.

1.– A los efectos previstos en esta Norma Foral, y en los términos que específicamente se establecen, las personas residentes o las entidades ciudadanas podrán ejercer la iniciativa para la realización de un proceso participativo en los procedimientos de decisión de la Diputación Foral.

2.– Las entidades locales tendrán también capacidad de iniciativa para proponer la apertura de los procesos participativos regulados en esta Norma Foral.

### TÍTULO III

#### DE LOS INSTRUMENTOS DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA

#### CAPÍTULO PRIMERO PROCESOS DE DELIBERACIÓN PARTICIPATIVA

**Artículo 9.**– Definición y contenido del proceso de deliberación participativa.

Se denomina proceso de deliberación participativa al conjunto de actos que se integran en un procedimiento de decisión o determinación de una concreta política pública, cuyo contenido consiste en un debate público sobre la decisión a adoptar y sus características, así como, en su caso, sobre las alternativas existentes en este ámbito y en el que participan directamente personas residentes o entidades ciudadanas que actúan en el ámbito al que corresponde la decisión o política a adoptar.

**Artículo 10.**– Ámbito de los procesos de deliberación participativa.

1.– Los procesos de deliberación participativa que se regulan en esta Norma Foral podrán realizarse en el seno de procedimientos relativos a la determinación de las políticas públicas que tengan una especial relevancia o impacto en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2.– Los procesos de deliberación participativa se realizarán en la fase inicial del procedimiento, que se abrirá con la adopción por parte de la Diputación



non ezarriko baititu, aurretiazko izaeraz, gauzatzeko asmoa dagoen politika publikoaren oinarritzko ezaugarriak.

3.– Salbuespen gisa, prozeduraren hurrengo faseetan ere deliberaziozko partaidetzarako prozesuak gauzatu ahal izango dira, proiektu edo politika publiko jakin batek, tramitazioan zehar, hasieran aurreikusi gabeko garrantzia bereganatu duenean, edo horren ezaugarriak sakonean aldatu direnean. Kasu hauetan, deliberaziozko partaidetzako prozesu bat gauzatzeko ekimena berariaz onartu beharko du Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak. Foru Batzordeak ekimena ezetsiz gero, arrazoitu egin beharko du erabaki hori.

**11. artikulua.**– Partaidetzako deliberazio prozesuetako Protokoloa.

1.– Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzaren iritziz, eta gaiaren izaera edo berezitasunak aintzat harturik, egokienak diren forma eta ezaugarriak izango ditu deliberaziozko partaidetzak kasu bakoitzean, lurraldea edo gaia dela-eta interesatuak diren eta Partaidetzarako Herritar Erakundearen Foru Erregistroan izena emanda dauden erakundeei aurrez kontsulta egin ostean.

2.– Aurreko atalean adierazitako ondorioetarako, Foru Zuzendaritzak partaidetzako deliberazio prozesuaren protokolo bat onartuko du prozesu jakin bakoitzerako. Protokoloan zehaztu egingo dira partaidetza prozesuaren izaera eta ezaugarriak, egitura eta helburuak, arau izango dituen erregelak, ondorioak lantzeko prozedura, eztabaidagai izango diren gaiak eta eztabaidatik kanpo geratuko direnak, gehienezko partaide kopurua, hauen izaera eta, hala egokitzuz gero, partaideen arteko kategoriak, parte hartuko duten pertsonak aukeratzeko edo izendatzeko mekanismoak, eztabaida prozesuaren gehienezko iraupena, prozesuaren zuzendaritzaren ardurak izango duen pertsona eta Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak beharrezko iritzitako bestelako guztiak.

3.– Deliberaziozko partaidetzarako ezinbestekoa izango da herritar erakundeak prozesuan parte hartzeko gonbidatzea, hain zuzen ere prozeduran hartu behar den politikari lurraldearen edo gaiaren ikuspegitik dagokion esparruan diharduten erakundeak, Partaidetzarako Herritar Erakundearen Foru Erregistroan egindako izen-ematean adierazia dutenarekin bat betiere.

4.– Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak izena emateko epe bat gaituko du Partaidetzarako Herritar Erakundearen Foru Erregistroan izena eman gabeak izan arren partaidetza prozesuan esku hartzeko interesa duten herritar erakundeentzat. Honetaz gain, erakunde horien ordezkari gisa parte hartuko duen pertsona kopurua zehaztuko du eta, behar izanez gero, erakunde horietatik prozesuan parte har-

Foral del acuerdo que establezca, de forma preliminar, las características básicas de la política pública que se pretende realizar.

3.– De forma excepcional, también podrán realizarse procesos de deliberación participativa en fases sucesivas del procedimiento cuando el proyecto o política pública a adoptar haya adquirido durante su tramitación una trascendencia imprevista en el momento inicial o cuando las características del mismo se hayan transformado de forma sustancial. En estos supuestos, la iniciativa para realizar un proceso de deliberación participativa deberá ser expresamente aceptada por la Comisión Foral para la Participación Ciudadana. La desestimación de la iniciativa por parte de la Comisión Foral deberá estar motivada.

**Artículo 11.**– El Protocolo de procesos de deliberación participativa.

6.- Izen-emateetarako epea bi hilabetekoa izango da, eskaria eta eskatzen den dokumentazioa behar bezala aurkezten direnetik kontatzen hasita. Adierazitako epean berariazko ebazpenik ez bada, eskaria onartua dela ulertuko da. Epe hori, dena den, etenik geratuko da, izen-emateari buruzko edozein datu edo dokumentu konpontzeko edo argitzeko egiten den errekerimenduren bat izanez gero.

7.- Izen-ematea ukatzeko erabakiak arrazoituta egon beharko du.

#### HIRUGARREN KAPITULUA HERRITARREN PARTAIDETZARAKO JARDUERA SUSTATZEA

**29. artikulua.**– Partaidetzarako herritar erakunde- en jarduera sustatzeko dirulaguntzak.

1.- Lurralde Historikoko Aurrekontuetan, urtero programa bat txertatuko da, herritarren partaidetza sustatzera begira.

2.- Arlo honetan, Partaidetzarako Herritar Erakunde- en Foru Erregistroan izen emandako herritar erakundeentzako dirulaguntzak ezarri ahal izango dira, partaidetzari, partaidetzaren kulturaren sustapenari edo partaidetzarako prestakuntzari lotutako jarduerak sustatzearen.

3.- Artikulu honetan aipatzen diren dirulaguntzak batez ere gizarte kolektibo desfaboratuenen, babesgabeen edo gizarte bazterketa jasateko arrisku handi- enean daudenen jarduerak bultzatzera zuzenduko dira. Era berean kontuan hartuko da, bereziki, genero berdintasunaren eta adineko pertsonen zein gazteen jardueraren sustapena.

4.- Artikulu honetan aurreikusitako dirulaguntzak emateko unean, deialdiko oinarriak, aurrekontuko erregelak eta dirulaguntzen araubide juridikoan jasoak izango dira arau.

**30. artikulua.**– Partaidetzarako herritar erakunde- en jarduera sustatzeko hitzarmenak.

1.- Foru Aldundiak eta herritar erakundeek lan- kidetzarako hitzarmenak egin ahal izango dituzte, baldin eta erakunde hauek gizartearen ordezkari- tza garrantzitsua badaukate eta esperientzia badute par- taidetza prozesuak bultzatzeko eta aurrera eramateko lanean. Herritar erakundeek beren gain hartzen di- tuzten betekizunen edukia herritarren partaidetzaren inguruko jardueri buruzkoa izango da, esaterako par- taidetza prozesuen sustapen, zabalkunde eta gauzatzea, horetarako prestakuntza eta ikaskuntzarekin batera.

a la misma. La ausencia de notificación de hechos o datos relevantes respecto a la situación de la entidad podrá ser motivo de suspensión de la inscripción en el Registro Foral, perdiendo, hasta su subsanación, los derechos que le pudieran corresponder en el ámbito de esta Norma Foral.

6.- Las inscripciones se realizarán en el plazo de dos meses desde la presentación en forma de la solici- tud y la documentación requerida. Se entenderá es- timada la solicitud a falta de resolución expresa en el plazo señalado. El transcurso del plazo quedará sus- pendido en el supuesto de cualquier requerimiento para subsanar o aclarar cualquier dato o documento relativo a la inscripción.

7.- La resolución denegatoria de la inscripción ha- brá de ser motivada.

#### CAPÍTULO TERCERO DEL FOMENTO DE LA ACTIVIDAD PARA LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA

**Artículo 29.**– Subvenciones para el fomento de la actividad de las entidades ciudadanas para la partici- pación.

1.- En los Presupuestos Generales del Territorio Histórico se incluirá, anualmente, un programa para el fomento de la participación ciudadana.

2.- En este ámbito, podrán establecerse subvencio- nes a las entidades ciudadanas inscritas en el Registro Foral de Entidades Ciudadanas para la Participación, con el fin de fomentar actividades vinculadas a la participación, al fomento de la cultura participativa o a la formación en participación.

3.- Las subvenciones a que se hace referencia en este artículo impulsarán especialmente las actividades de los colectivos sociales más desfavorecidos o despro- tegidos o que sufran mayor riesgo de exclusión social. Asimismo, se tendrá en cuenta, especialmente, el fo- mento de la igualdad de género y de la actividad de personas mayores y jóvenes.

4.- La concesión de las subvenciones previstas en este artículo se regirá por sus bases generales, por las normas presupuestarias y por la normativa general re- lativa al régimen jurídico de las subvenciones.

**Artículo 30.**– Convenios para el fomento de la acti- vidad de las entidades ciudadanas para la participación.

1.- La Diputación Foral podrá suscribir conve- nios de colaboración con entidades ciudadanas que, teniendo acreditada una significativa representación social, tengan experiencia en el impulso y realización de procesos participativos. El contenido de las obliga- ciones contraídas por las entidades ciudadanas versará sobre actuaciones referidas a la participación ciudada- na, como promoción, difusión, realización de proce- sos participativos, así como formación y aprendizaje.

2.– Foru Aldundiak herritar erakundeei lagundu egingo die hitzarmenean finkatutako obligazioak bete ahal izateko beharrezko baliabide eta tresnak eduki ditzaten.

**31. artikulua.**– Herritarren prestakuntza partaidetzarako.

1.– Foru Aldundiak hainbat zabalkunde jarduera garatuko ditu, egoiliarrek jakin dezaten, batetik, lurralde historikoan herritarren partaidetza bultzatzeko politika garatzen ari dela, eta bestetik, zein diren foru arau honetan ezarritako herritarren partaidetzarako tresnak.

2.– Foru Aldundiak herritarren partaidetzarako prestakuntza programak egitea sustatuko du, egoiliarren artean oro har, eta lurralde historikoan jardueraren bat duten herritar erakunde eta taldeen artean zehazki, herritarren partaidetzaren kultura sustatzearen.

3.– Foru Aldundiak, era berean, pertsonen prestakuntza sustatuko du, herritarren partaidetzarako teknikak, tresnak eta prozesuak garatzeko eta aplikatzeko, hain zuzen foru arau honetan aurreikusten diren partaidetza prozesuak baldintza egokietan aplikatu eta martxan jarri ahal izan daitezten. Horretarako, lurralde historikoan prestakuntza programa eta jarduera espezifikoak egitea sustatu ahal izango du, edo erakunde edo instituzio espezializatuek horrelakoak egin ditzaten lagundu, edo laguntzak eman lurralde historikoko herritarrek arlo honetan diren prestakuntza programarik egokienak jarraitu ahal izan ditzaten.

**32. artikulua.**– Foru Aldundiaren zerbitzuko langileak partaidetzarako prestatzea.

1.– Foru Aldundiak partaidetzaren kulturaren garapena sustatuko du bere langileen artean.

2.– Partaidetza praktikarik egokienak bultzatzearen, Foru Aldundiak partaidetza prozesuetako teknika eta kudeaketa mailako prestakuntza sustatuko du bere zerbitzuko langileen artean; horretarako, partaidetzarako prestakuntza ikastaroak egingo ditu, edo horietan parte hartuko, foru arau honetan jasotako xedapenen aplikazioa bide eta baldintza egokiz gauzatu ahal izan dadin.

#### V. IDAZPURUA

#### HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ANTOLAKETA

#### LEHEN KAPITULUA PARTAIDETZA PROGRAMA

**33. artikulua.**– Partaidetza Programa.

1.– Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordearen proposamenez, Partaidetza Programa onartuko du Foru Aldundiak.

2.– La Diputación Foral contribuirá a dotar a las entidades ciudadanas de los medios y recursos necesarios para la realización de las obligaciones fijadas en el convenio.

**Artículo 31.**– Formación ciudadana para la participación.

1.– La Diputación Foral realizará actividades de divulgación destinadas a que las personas residentes tengan conocimiento de la política de impulso de la participación ciudadana en el Territorio Histórico, así como de los instrumentos de participación ciudadana establecidos en esta Norma Foral.

2.– La Diputación Foral promoverá la realización de programas de formación para la participación ciudadana con el objetivo de fomentar la cultura de la participación ciudadana entre las personas residentes, en general, y entre las entidades ciudadanas que tengan actividad en el Territorio Histórico.

3.– La Diputación Foral promoverá, igualmente, la formación de personas en el desarrollo y aplicación de las técnicas, instrumentos y procesos de participación ciudadana a los efectos de que la aplicación y puesta en práctica de los procesos participativos previstos en esta Norma Foral puedan realizarse en condiciones adecuadas. Para ello, podrá promover la realización de programas y actividades específicas de formación en el Territorio Histórico, contribuir a su realización por organizaciones, instituciones o entidades especializadas o establecer ayudas para que la ciudadanía del Territorio Histórico puedan seguir los programas de formación más idóneos en este campo.

**Artículo 32.**– Formación del personal al servicio de la Diputación Foral para la participación.

1.– La Diputación Foral promoverá el desarrollo de la cultura de la participación entre el personal a su servicio.

2.– Para propiciar las mejores prácticas participativas, la Diputación Foral promoverá entre el personal a su servicio la formación en técnicas y gestión de procesos de participación, mediante la realización o participación en cursos de formación en participación, de forma que la aplicación de las disposiciones contenidas en esta Norma Foral puedan lograrse en condiciones satisfactorias.

#### TÍTULO V

#### DE LA ORGANIZACIÓN PARA LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA

#### CAPÍTULO PRIMERO DEL PROGRAMA PARTICIPATIVO

**Artículo 33.**– El Programa Participativo.

1.– A propuesta de la Comisión Foral para la Participación Ciudadana, la Diputación Foral aprobará el Programa Participativo.

2.– Diputatu nagusiak Batzar Nagusiei aditzera emango die programa, politika orokorrari buruzko urteko adierazpena dela-eta.

3.– Partaidetza Programak jasoko ditu herritarren partaidetzari buruzko proposamen guztiak, Foru Aldundiaren agintaldirako foru organoen jardueran kokatuko direnak, eta, halaber, zehaztuko du zer partaidetza prozesu, tresna eta metodo erabiliko diren foru politikak egiteko, aplikatzeko eta berrikusteko garaian.

4.– Partaidetza Programaren bitartez, Foru Aldundiak tresna bat baliatzen du, ahalbidetuko diona, batetik, herritarren partaidetzaren subjektu direnei eskaintzen dituen parte hartzeko aukeren berri ematea, eta, bestetik, herritarren ahalik eta lankidetzarik handiena ziurtatzeko partaidetza prozesu desberdinak antolatzea.

5.– Partaidetza Programa igorriko zaie Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan izena emandako herritar erakundeei, eta argitaratuko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa.

6.– Partaidetza Programak ez du ahulduko foru departamentuen ekimenerako ahalmena, ez eta herritarren partaidetzarako beren proposamen espezifikoak egin ditzaketan pertsona eta herritar erakundeena.

BIGARREN KAPITULUA  
GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
HERRITARREN PARTAIDETZARAKO GIZARTE  
KONTSEILUA

**34. artikulua.**– Sorrera eta xedea.

1.– Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua sortzen da, oro har herritarren partaidetzarako kontsulta organo gisa, eta, bereziki, foru arau honetan aurreikusitako tresnak garatzeko eta aplikatzeko.

2.– Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluak irizpena emango du Foru Aldundiak herritarren partaidetzaren arloan garatu behar dituen jardueraz eta, zehazki, Partaidetza Programarako proposamenaz.

3.– Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilu honek, arauz zehazten den moduan betiere, Foru Aldundiaren jarduera-arlo desberdinetan egindako ibilbidean ospea eta izena irabazitako pertsonak izango ditu kide.

2.– El Diputado o la Diputada General lo pondrá en conocimiento de las Juntas Generales con motivo de la formulación anual de la declaración de política general.

3.– El Programa Participativo deberá contener el conjunto de propuestas en materia de participación ciudadana que enmarcan la actividad de los órganos forales para el mandato de la Diputación Foral y en él se precisarán los procesos participativos, instrumentos y métodos para la elaboración, aplicación y revisión de las políticas forales.

4.– Por medio del Programa Participativo la Diputación Foral se dota del instrumento que le permite informar a los sujetos de la participación ciudadana de las posibilidades de participación ofertadas y hace posible la ordenación de los distintos procesos participativos para asegurar la máxima colaboración ciudadana.

5.– El Programa Participativo será remitido a las entidades ciudadanas inscritas en el Registro Foral de Entidades Ciudadanas para la Participación y se hará público en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

6.– El Programa Participativo no menoscabará la capacidad de iniciativa de los distintos departamentos forales y de las personas y entidades ciudadanas que pueden realizar sus propuestas específicas de participación ciudadana.

CAPÍTULO SEGUNDO  
DEL CONSEJO SOCIAL PARA LA PARTICIPACIÓN  
CIUDADANA DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE  
GIPUZKOA

**Artículo 34.**– Creación y finalidad.

1.– Se crea el Consejo Social para la Participación Ciudadana del Territorio Histórico de Gipuzkoa como órgano consultivo para la participación ciudadana, en general, y, específicamente, para el desarrollo y aplicación de los instrumentos previstos en esta Norma Foral.

2.– El Consejo Social para la Participación Ciudadana informará sobre las actuaciones a realizar en el ámbito de la participación ciudadana por parte de la Diputación Foral y, específicamente, sobre la propuesta del Programa Participativo.

3.– El Consejo Social para la Participación Ciudadana estará integrado, en la forma que se determine reglamentariamente, por personas de reconocido prestigio por su trayectoria en los diferentes sectores de actuación de la Diputación Foral.

HIRUGARREN KAPITULUA  
HERRITARREN PARTAIDETZARAKO FORU  
BATZORDEA

**35. artikulua.**– Sorrera eta xedea.

Foru Aldundiaren barnean Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea sortzen da. Herritarren partaidetzaren arloan Foru Aldundiaren jarduerak koordinatzea izango du xede, eta, zehatzago, foru arau honetan erregulatzen diren partaidetza prozesuak garatzeko jarduerak, arlo honetan foru departamentuen jardueraren koherentzia eta osagarritasuna bermatu eta zaintzearekin batera.

**36. artikulua.**– Osaketa.

1.– Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea osatuko dute Diputatu Nagusiaren Kabineteko buruak edo herritarren partaidetzaren gaian eskumena duen departamentuak izendatutako pertsonak, zeina batzordeburua izango baita, eta foru departamentuen ordezkari banak.

2.– Egoki iritzitako adituek parte hartu ahal izango dute Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordearen saioetan, hain zuzen honek garatu behar dituen eginkizunetan aholkularitza eskaintzearen. Hauxe gain, kasuan-kasuan ukitutako toki entitateen ordezkariak ere parte hartu ahal izango dute.

**37. artikulua.**– Funtzionamendu erregimena.

1.– Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea urtean bitan bilduko da, gutxienez.

2.– Foru Aldundiaren agintaldia hasirik, Foru Batzordeak gehienez ere sei hilabeteko epean zehaztuko ditu Partaidetza Programaren edukiak.

**38. artikulua.**– Eginkizunak.

Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordearen eginkizunak honakoak dira:

a) Foru Aldundiak onartuko duen Partaidetza Programaren proposamena egitea.

b) Ekimenak bultzatzea eta foru departamentuen elkarrekiko jardueren koherentzia, osagarritasuna eta koordinazioa ziurtatzea, foru arau honetan ezarritako ondorioetarako.

c) Herritarren partaidetzaren emaitzak sustatzeko eta horiek zabaltzeko kanpainak bultzatzea, eta partaidetzazko esperientzietako eztabaidei eta emaitzei zabalkunde ematea.

d) Toki entitateekin elkarlanean aritzea partaidetza ekimenak bultzatzeko unean, eta hala egokituz gero elkarrekiko ekimenak abiatzea eta partaidetza esperientziak sustatzera zuzendutako ekimenak bultzatzea.

CAPÍTULO TERCERO  
DE LA COMISIÓN FORAL PARA LA PARTICIPACIÓN  
CIUDADANA

**Artículo 35.**– Creación y finalidad.

En el seno de la Diputación Foral se crea la Comisión Foral para la Participación Ciudadana, con la finalidad de coordinar las actuaciones de ésta en el ámbito de la participación ciudadana y, más específicamente, en la realización de los procesos participativos regulados en esta Norma Foral, así como de garantizar y velar por la coherencia y la complementariedad de la actuación de los distintos departamentos forales en este ámbito.

**Artículo 36.**– Composición.

1.– La Comisión Foral para la Participación Ciudadana estará integrada por la persona que asuma la Jefatura del Gabinete del Diputado o Diputada General o por la persona designada por el departamento competente en materia de participación ciudadana, que la presidirá, y un representante de cada uno de los departamentos forales.

2.– En las sesiones de la Comisión Foral para la Participación Ciudadana podrán participar aquellos expertos que se considere conveniente, a los efectos de asesorar a aquélla en el cumplimiento de sus funciones, así como, en su caso, representantes de las entidades locales afectadas.

**Artículo 37.**– Régimen de funcionamiento.

1.– La Comisión Foral para la Participación Ciudadana se reunirá al menos dos veces al año.

2.– Iniciado el mandato de la Diputación Foral, la Comisión Foral, en el plazo máximo de seis meses, determinará los contenidos del Programa Participativo.

**Artículo 38.**– Funciones.

Corresponde a la Comisión Foral para la Participación Ciudadana:

a) Elaborar la propuesta de Programa Participativo que aprobará la Diputación Foral.

b) Impulsar las iniciativas y asegurar la coherencia, complementariedad y coordinación de las actividades conjuntas de los departamentos forales a los efectos establecidos en esta Norma Foral.

c) Fomentar las iniciativas de promoción y campañas de difusión de los resultados de la participación ciudadana y difundir los debates y resultados de las experiencias participativas.

d) Colaborar con las entidades locales en el impulso de las iniciativas de participación, establecer, en su caso, iniciativas conjuntas, y apoyar las iniciativas encaminadas a promover las experiencias de participación.

e) Administrazioaren eta herritarren prestakuntza sustatzea herritarren partaidetzarako esperientzien eta metodoen inguruan, eta hala egokituz gero adituekiko jardunaldi eta eztabaidetarako deialdiak egitea, herritarren partaidetzarako eskubidearen subjektuek prestakuntza hobea izan dezaten.

f) Lurralde historikoko pertsona egoiliarrek hasitako partaidetzazko deliberazio prozesuetan, Foru Aldundiak landu behar duen politikak edo hartu behar duen erabakiak eragiten dion lurralde esparrua mugatzerakoan egon daitezkeen desadostasunak ebaztea.

LAUGARREN KAPITULUA  
HERRITARREN PARTAIDETZARAKO FORU  
ZUZENDARITZA

**39. artikulua.**– Sorrera.

1.– Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza sortzen da, herritarren partaidetza bultzatzeko organo gisa.

2.– Zuzendaritzak Foru Administrazioarekiko autonomia osoaz beteko ditu bere eginkizunak, eta, Foru Administrazioaren egitura hierarkikoan sartu gabe, Diputatu Nagusiaren Kabineteari edota herritarren partaidetzaren esparruan eskumena duen departamentuari atxikita egongo da.

**40. artikulua.**– Antolaketa.

1.– Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza pertsona bakarreko organoa da, esparru publikoan gaitasun eta esperientzia frogatua duten, herritarren partaidetzarako prozesuak bultzatzeko eta garatzeko interesatuta dauden, eta partaidetza prozesuen garapenaren gaineko ezagutza duten pertsonen artean izendatua.

2.– Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza bere gain duen pertsonak autonomia, gardentasun eta neutraltasun irizpidez jokatu du eta Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeari emango dio bere jardueren berri.

3.– Diputatuen Kontseiluak izendatuko du Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzan arituko den pertsona, lau urteko eperako. Agintaldia berriztagarria izango da.

4.– Diputatuen Kontseiluak kargutik kendu ahal izango du pertsona izendatua, baldin eta hau egiten ari den lanari egoki irizten ez badio lurralde historikoan herritarren partaidetza garatzera begira.

5.– Foru Zuzendaritzari atxikitako pertsonala Foru Administrazioaren zerbitzura dauden behin-behineko langileak eta funtzionarioek osatu dezakete.

6.– Foru Aldundiak urteko Aurrekontu Orokorretan xedatuko ditu Foru Zuzendaritza finantzatzeko behar diren diru baliabideak.

e) Promover la formación administrativa y ciudadana en las experiencias y métodos de participación ciudadana, y convocar, en su caso, jornadas y debates con expertos que ayuden a una mayor preparación de los sujetos del derecho de participación ciudadana.

f) Resolver las discrepancias sobre la determinación del ámbito territorial de afectación de la política o decisión a adoptar por la Diputación Foral en los procesos de deliberación participativa iniciados por personas residentes en el Territorio Histórico.

CAPÍTULO CUARTO  
DE LA DIRECCIÓN FORAL PARA LA  
PARTICIPACIÓN CIUDADANA

**Artículo 39.**– Creación.

1.– Se crea la Dirección Foral para la Participación Ciudadana en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, como órgano de impulso de la participación ciudadana.

2.– La Dirección Foral ejerce sus funciones con plena autonomía respecto de la Administración Foral y se adscribirá, sin integrarse en la estructura jerárquica de la Administración Foral, al Gabinete del Diputado o Diputada General, o al departamento competente en materia de participación ciudadana.

**Artículo 40.**– Organización.

1.– La Dirección Foral para la Participación Ciudadana es un órgano unipersonal, designado entre personas de reconocida competencia y experiencia en el ámbito público, con interés en el impulso y desarrollo de procesos de participación ciudadana y con conocimientos en el desarrollo de procesos participativos.

2.– La persona que desempeñe la Dirección Foral para la Participación Ciudadana actuará guiada por los criterios de autonomía, transparencia y neutralidad y dará cuenta de sus actuaciones a la Comisión Foral para la Participación Ciudadana.

3.– La persona que desempeñe la Dirección para la Participación Ciudadana será nombrada por el Consejo de Diputados para un periodo de cuatro años. El mandato será renovable.

4.– El Consejo de Diputados podrá cesar a la persona que haya sido designada para desempeñar el cargo si considera que su ejercicio no es satisfactorio para el desarrollo de la participación ciudadana en el Territorio Histórico.

5.– El personal adscrito a la Dirección Foral podrá estar integrado por personal eventual así como por personal funcionario al servicio de la Administración Foral.

6.– La Diputación Foral consignará anualmente en sus Presupuestos Generales los recursos económicos necesarios para la financiación de la Dirección Foral.

**41. artikulua.**– Eginkizunak.

1.– Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza-ri dagokio Partaidetza Programa gauzatzea.

2.– Zehazki, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzaren eginkizunak hurrenak izango dira:

a) Partaidetza Programan aurreikusitako partaidetza prozesuak eta foru departamentuek sustatutako ekimenak aurrera eramatea.

b) Gizarte proposamenak baloratzea, antolatzea eta horietan jardutea.

c) Foru Batzordeak herritarren partaidetzaren onura eta lorpenei zabalkundea emateko ezartzen dituen aurreikuspenak gauzatzea.

d) Partaidetza prozesuak gauzatzeko irizpideak finkatzea.

e) Gizarte partaidetzaren aplikazioaren eta emaitzen balorazioa.

f) Partaidetza jarduerari eta partaidetza prozesuak hobetzeko iradokizunei buruzko urteko txostena egitea.

g) Egoiliarrekiko eta herritar erakundeekiko etengabeko lotura, horiei partaidetza prozesuak gauzatzeko beharrezko informazioa ematearren.

h) Partaidetzarako Herritar Erakundearen Foru Erregistroa kudeatzea.

i) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluak funtzionatzeko behar dituen giza baliabideak eta materialak ematea.

j) Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak ematen dion bestelako edozein.

VI. IDAZPURUA

HERRITARREN PARTAIDETZA UDAL MAILAN SUSTATZEA

**42. artikulua.**– Toki entitateetan partaidetza sustatzea.

1.– Foru Aldundiak bultzatuko du toki entitateekin lankidetzak hitzarmenak izenpetzea, hauen eskumen eta interes esparruan herritarren partaidetza sustatzera begira. Hitzarmen hauek toki entitateekin banaka izenpetu ahal izango dira, edo erakundeok biltzen dituen/dituzten elkartearekin edo elkarteekin.

2.– Lankidetzarako hitzarmenek ezarriko dituzte Foru Aldundiak partaidetzaren kultura garatzeko eta partaidetzazko jarduerak garatzeko toki entitateei emango dizkien dirulaguntzak.

**Artículo 41.**– Funciones.

1.– Corresponde a la Dirección Foral para la Participación Ciudadana la ejecución del Programa Participativo.

2.– De forma específica, corresponderá a la Dirección Foral para la Participación Ciudadana:

a) La ejecución de los procesos participativos previstos en el Programa Participativo y de las iniciativas promovidas por los departamentos forales.

b) La valoración, ordenación y actuación de las propuestas sociales.

c) La realización de las previsiones de difusión de los beneficios y logros de la participación ciudadana establecidos por la Comisión Foral.

d) El establecimiento de los criterios de realización de los procesos participativos.

e) La valoración de la aplicación y resultados de la participación social.

f) La elaboración del informe anual de la actividad participativa y de las sugerencias para la mejora de los procesos participativos.

g) La conexión permanente con las personas residentes y entidades ciudadanas para proporcionales la información necesaria para la realización de los procesos participativos.

h) La gestión del Registro Foral de Entidades Ciudadanas para la Participación.

i) La provisión de los medios personales y materiales necesarios para el funcionamiento del Consejo Social para la Participación Ciudadana del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

j) Cualquier otra que le sea asignada por la Comisión Foral para la Participación Ciudadana.

TÍTULO VI

DEL FOMENTO DE LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA EN EL ÁMBITO MUNICIPAL

**Artículo 42.**– El fomento de la participación en las entidades locales.

1.– La Diputación Foral impulsará la suscripción de convenios de colaboración con las entidades locales para el fomento de la participación ciudadana en el ámbito de competencia e interés de éstas. Los convenios podrán suscribirse tanto con las entidades locales, de forma individualizada, como con la asociación o asociaciones en que se integren.

2.– Los convenios de colaboración establecerán las ayudas económicas de la Diputación Foral a las entidades locales para el desarrollo de una cultura de la participación y la realización de actividades participativas.

3.– Lankidetzaren hitzarmenaren helburuetako bat toki mailan herritar erakundearen sorrerari bultzada ematea izango da, edo dagoeneko badirenen jarduerak eta partaidetza jardueretako inplikazioa areagotzea.

4.– Foru Aldundiak toki entitateen eskura jarriko ditu, hauen zerbitzuko langileen eskura zehazki, partaidetzarako prestakuntza programak eta programa horiek gauzatzeko ezartzen duen laguntza sistema.

**43. artikulua.**– Toki mailako partaidetza praktikarako foru laguntza teknikoak.

1.– Foru Aldundiak beharrezko laguntza teknikoak eskainiko die toki entitateei, hauei dagokien esparruan partaidetza prozesuak gauzatu ahal izateko.

2.– Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak eskainiko du laguntza teknikoak.

44. artikulua.– Partaidetza prozesuak eskatzea toki mailako foru proiektuetan.

Toki ekimeneko proiektuen kasuan, foru esku-hartzea badenetan, toki entitate interesatuari aurrez entzun ondoren Foru Aldundiak partaidetza prozesu bat egitea eskatu ahal izango du, proiektuaren garrantzia edo ezaugarriak direla eta komeni denean.

## VII. IDAZPURUA

### PARTAIDETZA SISTEMAREN ETA PARTAIDETZA PROZESUEN EBALUAZIOA

**45. artikulua.**– Partaidetza prozesuaren banakako ebaluazioa.

1.– Foru arau honetan aurreikusitakoa aplikatuta praktikara eraman den partaidetza prozesu bakoitza amaitzen denean, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak prozesu horren ebaluaziorako prozedura jarriko du abian.

2.– Partaidetza prozesuaren ebaluazioan, bertan parte hartu duten guztiei entzuzko zaie, tramitazio fasean partaidetza prozesua txertatu den prozeduraren kudeaketaren ardura duen Foru Aldundiko zerbitzuko pertsonalari bezalaxe.

3.– Era berean, partaidetza prozesuaren ebaluazio prozedurak partaidetzaren arloko adituek egindako kanpo auditoria bat ere izango du.

4.– Ebaluazio prozeduran bildutako iritzi eta txostenetan oinarriturik, partaidetzarako Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak ondorio batzuk prestatuko ditu, eta hauetan aditzera emango ditu partaidetza prozesuan agerian geratutako elementu egokiak eta akatsak, etorkizuneko prozesuetarako egoki irizten diren hobekuntzarako proposamenekin batera.

3.– Los convenios de colaboración tratarán de potenciar la creación de entidades ciudadanas de ámbito local o impulsar las actividades de las ya existentes y su implicación en actividades de participación.

4.– La Diputación Foral pondrá a disposición del personal al servicio de las entidades locales los programas de formación para la participación y el sistema de ayudas que establezca para su realización.

**Artículo 43.**– Asistencia técnica foral para la práctica participativa en el ámbito local.

1.– La Diputación Foral ofrecerá a las entidades locales la asistencia técnica necesaria para la realización de procesos participativos en el ámbito de aquéllas.

2.– La asistencia técnica se realizará por parte de la Dirección Foral para la Participación Ciudadana.

Artículo 44.– Exigencia de procesos participativos en proyectos forales de ámbito local.

En los supuestos de proyectos de intervención foral de iniciativa local, la Diputación Foral, previa audiencia a la entidad local interesada, podrá solicitar la realización de un proceso participativo cuando la relevancia o características del proyecto lo aconsejen.

## TÍTULO VII

### DE LA EVALUACIÓN DEL SISTEMA DE PARTICIPACIÓN Y DE LOS PROCESOS PARTICIPATIVOS

**Artículo 45.**– Evaluación de los procesos participativos de forma individualizada.

1.– Tras concluir cada proceso participativo que se haya puesto en práctica en aplicación de lo previsto en esta Norma Foral, la Dirección Foral para la Participación Ciudadana procederá a abrir un procedimiento de evaluación del mismo.

2.– En la evaluación del proceso participativo se dará audiencia a todos los que hayan intervenido en el mismo, así como al personal al servicio de la Diputación Foral responsable de la gestión del procedimiento en cuya tramitación se haya incorporado el proceso participativo.

3.– Asimismo, el procedimiento de evaluación del proceso participativo incorporará una auditoría externa realizada por profesionales expertos en participación.

4.– Sobre la base de las opiniones e informes recabados en el procedimiento de evaluación, la Dirección Foral para la Participación Ciudadana elaborará unas conclusiones en las que señalará los aciertos y los defectos que, en su caso, se hayan manifestado en el proceso participativo y las propuestas de mejora que considera oportunas para futuros procesos.



5.- Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak ebaluazio txostena eta konklusioak aurkeztuko dizkio Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeari. Honek jendaurrean azalduko ditu Zuzendaritzaren konklusioak, bere iritziarekin batera, inolaz ere, beharrezko ikusiz gero.

**46. artikulua.**– Herritarren partaidetzarako sistemaren ebaluazio orokorra.

1.– Foru arau hau indarrean jartzen denetik bost urte igarota, Foru Aldundiak, Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordearen bidez, eta Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzaren laguntzaz betiere, foru arau honetan ezarritako herritarren partaidetzarako sistemaren ebaluazio orokorreko txosten bat egingo du, eta Batzar Nagusietara bidaliko du hurrena.

2.– Batzar Nagusiek, Foru Aldundiak bidalitako txostenean oinarriturik, foru arau honetan ezartzen diren partaidetzarako tresna eta prozeduren aplikazioaren ebaluazio orokor bat egingo dute.

3.– Partaidetza sistemaren ebaluazioa partaidetza prozesuetako aditu profesionalen laguntza teknikoaz egingo da.

4.– Partaidetza sistemaren ebaluazio orokorrerako prozesuan, edonola ere, entzun egingo zaie Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan izena emandako herritar erakundeei, partaidetza prozesuetan esku-hartze bereziki aktiboa izan duten pertsonen, eta toki entitateen.

5.– Foru arau honetan aurreikusitako partaidetzarako tresna eta prozeduren ebaluazio orokorra egin ostean, Batzar Nagusiek egokien irizten dieten akordioak hartuko dituzte horiek mantentze, deuseztatze edo erreformatzera begira.

#### XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehenengoa.**– Partaidetza sistema ezartzeko trantsizio epea.

1.– Foru arau hau indarrean sartzen denean, Foru Aldundiak urtebeteko epea izango du bertan jasotzen diren aurreikuspenak garatzeko, hain zuzen arauak ezartzen duen partaidetza sistema praktikara eraman ahal izateko moduan.

2.– Diputatu nagusiak Batzar Nagusietan aurkeztuko du lehen Partaidetza Programa, aurreko atalean ezarritako urtebeteko epea igaro ondoren politika orokorrari buruzko urteko adierazpena aurkezten duen lehenbizikoan.

3.– Xedapen iragankor honen lehenengo atalean ezarritako urtebeteko epean zehar aurkezten diren ekimenek ez dute eraginik izango tramitatzen ari di-

5.– La Dirección Foral para la Participación Ciudadana elevará el informe de evaluación, con sus conclusiones, a la Comisión Foral para la Participación Ciudadana, que procederá a hacer públicas las conclusiones de la Dirección Foral, así como, si lo considerase oportuno, su propia opinión.

**Artículo 46.**– Evaluación global del sistema de participación ciudadana.

1.– Transcurrido un periodo de cinco años desde la entrada en vigor de esta Norma Foral, la Diputación Foral, por medio de la Comisión Foral para la Participación Ciudadana, asistida por la Dirección Foral para la Participación Ciudadana, procederá a realizar un informe global de evaluación del sistema de participación ciudadana establecido en esta Norma Foral, que trasladará a las Juntas Generales.

2.– Las Juntas Generales, sobre la base del informe remitido por la Diputación Foral, procederán a realizar una evaluación global de la aplicación de los instrumentos y procedimientos de participación establecidos en esta Norma Foral.

3.– La evaluación del sistema de participación se realizará con la asistencia técnica de profesionales expertos en procesos de participación.

4.– En el proceso de evaluación global del sistema de participación se dará audiencia, en todo caso, a las entidades ciudadanas inscritas en el Registro Foral de Entidades Ciudadanas para la Participación, a las personas que hayan tenido una intervención especialmente activa en los procesos de participación y a las entidades locales.

5.– Realizada la evaluación global de los instrumentos y procedimientos de participación previstos en esta Norma Foral, las Juntas Generales adoptarán los acuerdos que consideren más adecuados en relación con su mantenimiento, su derogación o su reforma.

#### DISPOSICIONES TRANSITORIAS

**Primera.**– Periodo transitorio para el establecimiento del sistema participativo.

1.– A partir de la entrada en vigor de esta Norma Foral, la Diputación Foral dispondrá de un plazo de un año para desarrollar sus previsiones de forma que pueda ponerse en práctica el sistema participativo que establece.

2.– El Diputado o la Diputada General presentará ante las Juntas Generales el primer Programa Participativo en la primera ocasión en que presente la declaración política general anual tras haber transcurrido el periodo de un año establecido en el apartado anterior.

3.– Las iniciativas que, en su caso, pudieran presentarse durante el periodo de un año establecido en el apartado primero de esta disposición transitoria no

ren prozeduretan, non eta gaiaren garrantzia dela eta Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak horrela izatea erabakitzen ez duen, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak arrazoi bidez egin proposamenaren ildotik betiere, eta kudeaketaren eskumena duen departamentuari aurrez txostena eskatuta.

**Bigarrena.**– Herritarren partaidetzarako prozedurak eta tresnak modu iragankorrean aplikatzeko arloak.

Foru arau hau indarrean jarri eta hurrengo bi urteetan zehar, hainbat arlotan jarri ahal izango dira abian partaidetza prozesuak; arloak honakoak dira:

- a) Lurraldearen plangintza.
- b) Herrilan eta azpiegiturak.
- c) Ingurumena eta hondakinen tratamendua.
- d) Kultura eta euskararen sustapena.
- e) Kirolak.
- f) Berrikuntza eta zientziaren garapenerako politika.
- g) Gizarte politika.
- h) Berdintasun politikak.

#### AMAIERAKO XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Erregelamenduzko garapena.

Foru Aldundiak behar diren erregelamendu xedapenak emango ditu, foru arau hau garatu eta aplikatzearen.

**Bigarrena.**– Indarrean sartzea.

Foru arau hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

afectarán a los procedimientos en tramitación, salvo que, por la trascendencia del asunto, así lo determine la Comisión Foral para la Participación Ciudadana, a propuesta motivada de la Dirección Foral para la Participación Ciudadana, previa solicitud de informe al departamento competente para su gestión.

**Segunda.**– Materias de aplicación de los procedimientos e instrumentos de participación ciudadana de forma transitoria.

Durante los dos años siguientes a la entrada en vigor de la Norma Foral, podrán ponerse en práctica procesos participativos en las siguientes materias:

- a) Planificación territorial.
- b) Obras públicas e infraestructuras.
- c) Medio ambiente y tratamiento de residuos.
- d) Cultura y fomento del euskera.
- e) Deportes.
- f) Política de innovación y desarrollo científico.
- g) Política social.
- h) Políticas de igualdad.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– Desarrollo reglamentario.

La Diputación Foral dictará las disposiciones reglamentarias necesarias para el desarrollo y aplicación de esta Norma Foral.

**Segunda.**– Entrada en vigor.

La presente Norma Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.